

LEHEN TELEBISTA SAIOA ARAGOIERAZ

Eskatu bai, makina bat aldiz eskatu zuten telebista saioa Aragón TV kate publikoan, baina ez zuten lortu halakorik 2018ra arte. Arrakasta izan du lehen denboraldiak eta irailean bigarrena hasiko du aktualitateko gaiak jorratzen dituen *Charrín Charrán* saioak.

 **ONINTZA IRURETA AZKUNE**
 **PIPA ÁLVAREZ**

Silvia Cebolla zaragozarra aragoiera ikastaroak ematen ari zen Nogará kultur elkartearen. Halako batean A rodar ekoiztetxeko jendea joan zitzairen esanez aragoieraz egingo zen lehen telebista saioan aurkezle izateko proposa izan zitekeela elkartearen hizkuntza ikastaroak ematen ari zen irakasleren bat. Ekoiztetxekoek eskolak ematen ikusi zuten Cebolla eta bera aukeratu zuten aurkezle lanetarako. Aragoieraren alde egiten ari den borrokan aletxo bat gehiago jarri duela sentitzen du zaragozarrak. Borroka horretan zaildua baita. 19 urterekin ikasi zuen hizkuntza kultur elkarte batera gerturatu zenean. Aragoieraz maitemindu zen. Telebista saioa hasi aurretik Youtuben kanal bat ireki zuen sukaldaritza beganoaz aritzeko, aragoieraz, jakina. Bitarteko modernoak erabili nahi zituen batez ere gazte jendea erakartzeko.

HIZTUN DIRENENTZAKO ETA EZ DIRENENTZAKO SAIOA

Berarentzat sorpresa izan zen aurkezle lanetan hastea, ez hainbeste programa abiatzea. Izan ere, urteak zeramatatzaten aragoieraren aldeko elkarteek saioa eskatzen eta proiektu zehatza bidalia zuten Aragón TVra aspaldi. Cebollaren ustez,

2010eko hizkuntzen legeak eman zuen bultzada ezinbestekoa. Lege horrek dio, besteak beste, hedabideek Aragoiko hizkuntzei tokia egin behar dietela. Zortzi urte geroago estreinatu zuten programa.

Telebista saioak izan duen harrerarekin pozik daudela esan digu. Jendeak maitasun handiz erantzun die eta sare sozialetan mugimendu bizia izan dute. Aragón TVko saioen artean Instagrameko eta Twitterreko jarraitzaile gehien dutenak dira.

Saioa ordu erdikoa da eta igande goizetan emititzen dute. Erreportajeak, elkarrizketa sakona, hizkuntzari buruzko *Pizarra y clarión* tarteak, *Mundo mágico* (umeak dira protagonista) eta fikzioa eskaintzen dute. Oso argi zeukaten saioa kulturala izango zela, baina gai guztiei buruz arituko zena. Hizkuntzaz oraindik dirauten hainbat mito bertan behera bota nahi zituzten. Jende askok uste du aragoierak landa eremuko gauzez hitz egiteko baino ez duela balio eta zaharrak baino ez direla hiztunak. Saioak landa eremua zein gune urbanoa jorratzen du eta adin guztietako hiztunak aurkitu ditu Aragón barrera kameraren aurrean jartzeko prest. Ez da kasualitatea aurkezle Silvia Cebolla izatea eta erreportajeak egiten Jorge Pueyo agertzea. Aniztasuna

lehen lerroan agertu nahi izan dute: Cebolla hizkuntza helduaroan ikasia da eta Pueyok berriz 23 urte ditu eta Fonze-koa da. Herri handien artean aragoiera hitzun gehien dutenetakoa da. Pueyok lehen hizkuntza du aragoiera. Saio gaztea egin nahi izan dute, eta erakutsi edozertaz hitz egin daitekeela aragoieraz.

Cebollak onartu du presio pixka bat sentitu dutela, lehen aldia baita horrelako zerbait egiten dela. Aragoiko jende askok ez du sekula aragoiera entzun, ez daki nolakoa den, eta saioa horretarako aukera paregabea da: “Kalean topatzen dut jendea esaten didana badakiela aragoiera hitz egiten dela, baina gauza gehiago esaten ez dakite, eta askok ez du inoiz entzun. Oso gogorra da. Saioak hizkuntza normalizatzen lagunduko du”.

Aragoiera hitzunik berriz, harro ikusi dute saioa. Hala gertatu zaie Fonzekoei. Herrikide gaztea ikusi dute erreportari lanean aragoieraz ari dela. Cebollak dio egunero hitz egiten duten hizkuntza duindu dela sentitzen dutela. Arraroa egin zaie herrikidea aragoieraz aritzea telebistan, saioa hasi baino lehen aragoiera hitzunik ez baitzen agertzen telebista publikoan. Hiztunak harro sentitu dira saioa ikusita eta erraz eman dute baiezkua saioan parte hartzeko. Gon-





ERREFERENTEAK SORTZEN.

Argazkikoak dira 'Charrin Charran' telebista saioko hiru aurpegi ezagunak. Ezkerretik eskuinera: Juan Pablo Martínez, Zaragozako Unibertsitateko irakaslea da eta aragoiera aztertzen du. 'Pizarra y clarión' saioa aurkezten du. Silvia Cebolla saioaren aurkezlea da eta lehenagotik Youtuben sukaldaritza beganoa landu izanagatik da ezaguna. Jorge Pueyo hizkuntza bizienetakoa dagoen Fonz herrikoa da eta erreportari lanak egiten ditu. Saioa A rodar ekoiztetxeak egiten du Nogará kultur elkartearekin elkarlanean.

bidatuak aintzatetsiak sentitu dira telebistan ateratzeko aukera eman zaielako.

Beste mito batekin puskatzeko ere balio du saioak. Hainbat aragoiera hiztun harritu da aurkezleari eta erreportariari ulertzeko gai delako. Barneratuta daukate aragoiera oso desberdinak hitz egiten direla han-hemenka. Hizkuntza gero ikasi duen bati ulertzea harrigarria egin zaio askori, ez zuelako halakorik espero. Pueyo erreportariak ekialdeko hizkera du eta mendebaldera egin duenean hainbat herritar konbentzitura zegoen ez ziotela ulertuko. "Ia-ia herriko hizkuntza dela sinetsita daude eta elkar ulertzea martzianoa dela. Herrian hitz egitera daude ohituta, hortik kanpora ez".

Orain lurraldeko edozein txokotako herritarrak normaltasunez entzuten ditu beste edozein bazterretako hiztunak hizketan. Alabaina, saioa ez

da aragoiera hiztunentzat soilik. Hiztunak ez direnak ere harrapatu nahi dituzte, eta hizkuntza ikastera animatzen badira askoz hobeto. Hizkuntza latinoaz izaki gaztelaniaz dakienak ia dena ulertzeko arazorik ez duela dio Cebollak. Hala ere, ikus-entzuleak gorrentzako prestatutako gaztelaniazko azpittituluak erabil ditzake hobeto jarraitzeko. Aurkezleak ohar-tarazi digu Aragoin gaztelaniaz hitz egiten duenak ere, konturatuta edo konturatu gabe, aragoierazko hitz dezente erabiltzen dituela. Beraz, are errazagoa da hizkuntza belarrira ezaguna egitea. Cebollaren iritziz, azken urteetan aragoiera ikasle kopuruak gora egin du eta telebista saioak horretan lagundu du.

Bigarren denboraldia hasiko du Charrín Charrán-ek, eta saioaren izenburuak ondo dioten moduan halaxe jarraituko dute igandero, berriketan, hitz eta pitz, aragoieraz. ●

ARAGOIERA ARRISKUAN

UNESCOren sailkapenaren arabera aragoiera desagertzeko arriskuan dago, alegia, seme-alabek jada ez dute jasotzen hizkuntza etxetik.

2017an Aragoiko Soziolinguistikaren Mintegiak egindako ikerketaren arabera ondokoak dira aragoieraren egoerari buruzko datuak:

25.556

dira aragoiar
aragoieraz hitz egiteko

Unescoren datuen arabera berriz, hiztunak 10.000 inguru dira. Kontuan hartu behar da Mintegiaren ikerketa 2011ko errolda datuetan oinarritzen dela eta halakoetan herritarrari galdetzen zaio ea aragoieraz hitz egiten badakien ala ez. Susmoa da, hizkuntza jakin ez arren, hitz egiteko gai direla eta hitz egiten dutela erantzuten dutela. Hainbat hitz eta esaera jakiteak pentsarazten die hizkuntza badakitela, ez baitira jabetzen hizkuntza osoa dela eta ez dela hiztegi kontua soilik. Askoren ustea da 25.000ko zifra oso puztua dela.

17.009

dira idazteko gai

NON HITZ EGITEN DA GEHIEN?

Jazetania, Gállego Garaia, Sobrarbe, Hoya de Huesca, Somontano de Barbastro eta Cinca Erdialdea.

ZARAGOZAN: 7.183 hiztun.

Aspaldi galdu zen aragoiera Zaragozan. Lurralde horretako hiztunak edo ikasi berriak dira edo Aragoiko landa eremutik joandako biztanleak dira.

HUESCAN: 1.048 hiztun.

TERUELEN: 448 hiztun.

Iturria: Aragoiko Soziolinguistikaren Mintegiak 2017an egindako ikerketa. Errolda datuak 2011koak dira.